

NOR GARA?

"BUBA", ZER DA?

"BUBA" ideia berritzailea duen enpresa da; bigarren eskuko denda, bere berezitasunak dituena. Horrela ikus daiteke proiektuaren izenean; letra bakoitzak gure helburuak islatzen baititu. B, birziklatzea, U, uztea, B, berrerabiltzea eta A aurrezteak.

Zertan datza gure enpresa?

Dendan saltzen ditugun produktuak, produktu horiek nahi ez duen jendetik jasotzen ditugu. Lortzen ditugun produktu horien truke, bonoak ematen ditugu, Km0-ko produktuak saltzen dituzten eta haiekin kontaktuan gauden Bilboko hainbat dendetan gastatzeko. Ondoren, jasotako produktuak, behar izanez gero berrituta, prezio baxuagoan saltzen ditugu gure bezeroei, aurrezteak eta berrerabiltzea xedea izanik.

